




**Álvaro Iturritxa Vélez de Elburgo**
**Gasteizko Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Espazio Publikoko Koordinatzaile Nagusia**

Gasteizen jaio zen, 1969ko martxoaren 17an. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu.

Udal horretako zinegotzia izan da 1994-1999 eta 2011-2015 legegintzaldietan. Lehenengoan, Jose Angel Cuerda izan zen alkate, eta Iturritxa, berriz, Nekazaritza Eremuko zinegotzia izan zen hasiera batean, eta ondoren, Hirigintzakoa. Aurreko legegintzaldian, bestalde, udal foroetan parte hartu zuen; esate baterako, Ingurumen Batzordean, TUVISA garraioaren udal elkartearen kontseiluan edo Mugikortasun Foroan.

Nekazaria ere bada, bai eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategietako Teknikari Espezialista ere.

Erakundeetan izan dituen beste kargu batzuk:

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ikerketa eta Ingurune Naturaleko Zuzendaria, 1999tik 2001era. ELIKA Fundazioaren Zuzendari Kudeatzailea, 2001ean. Eta EAJren bozeramailea, Arabako Batzar Nagusietan, 2003tik 2007ra.